

URIBARRI GANBOAKO URTEGIA

Esperientzia turistikoen katalogoa

alava
turismo.
eus



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INDUSTRIA
Y TURISMO



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

araba  álava



 **Ullibarri-Gamboa**
URTEGIA EMBALSE





*Natura darion eta historiari
atxikitzen dion tokia*



Aurkibide

08 · URIBARRI GANBOAKO URTEGIA

10 · BARNEALDEKO HONDARTZAK

NATURAZ BETERIKO URTEA

- 14 · Urtaroen magia
- 16 · Natura eta biodibertsitatea
- Esperientziak:
 - 18 · Gaueko kantuak
 - 20 · Urtegiko dantza
 - 22 · Orkideen ibilbidea
 - 24 · Udazkeneko koloreak eta marrualdia
 - 26 · Ispiluak uretan
 - 28 · Urtegiko bitxi urdina
 - 30 · Izarren azpian
 - 32 · Hegaztien behaketa bizikletaz
 - 34 · Pedalei eragiten uraren eta paisaiaren artean
 - 36 · Arrantza jasangarria kayakez
 - 38 · Jardueren egutegia

56 · INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

58 · JATETXEAK ETA OSTATUAK

URPEAN GERATUKO HISTORIAK

- 42 · Kultura, historia eta ondarea
- Esperientziak:
 - 44 · Murgildu historian
 - 46 · Urpean geratu diren herrien memoria
 - 48 · Urtegiko xuxurlak kayakez
 - 50 · Urtegiaren hegala eta memoria
 - 52 · Urtegiaren jatorria
 - 54 · Jardueren egutegia

URIBARRI GANBOAKO URTEGIA

Bizitzaz eta memoriaz beteriko paisaiak

Uribarri Ganboako urtegia Arabaren bihotzean dago, Gasteiztik hamabost kilometro eskasera, eta, pasaia horretan, **ura, memoria eta lurraldea etengabeko solaskide dira.**

XX. mendearen erdialdean eraiki zuten, Zadorra ibaiaren gainean, ur-hornidura bermatzearren. Gaur egun, Arabako **naturagune eta aisia-gune esanguratsuenetakoa** da.

Urtegiak **1.400 hektareatik** gorako ur-azalera du, eta **45 kilometrotik** gorako perimetroa. Beraz, paisaia zabal, lasai eta aldakorra itxuratzen du, muino, larre eta basoz inguratua.

Ur horietan murgilduta, **antzinako herriak eta laborantza-lurrak** ditugu, urtegiaren beraren nortasuna osatzen duen aztarna.

Gaur egun, urtegia oinez edo bizikletaz zeharkatzeko aukera ematen dute **bide berdeek** eta **landa-bideek**, inguruko udalerrri txikiak lotuz eta **uraren lasaitasunaz gozatzeko** behatoki ugari eskainiz.

Inguruneak **naturaz aktiboki eta lasaitasunez** gozatzera gonbidatzen du. Oinez edo bizikletaz, Mendixurko hezeguneetan hegaztiak behatuz, kayak-paseoak edo uretako jarduerak eginez, interpretazio-ibilbideez edo proposamen kulturaliez... **lurraldea hainbat ikuspuntutatik ezagutuko** du bisitariak, **urtegia bere erritmoan** esploratuz, ikasiz eta **gozatuz**.







BARNEALDEKO HONDARTZAK

Urak eta naturak topo egiten duten lekuan

Urtegiaren ertzak aisialdi lasairako guneak dira. Urak, berdeguneek eta isiltasunak esperientzia paregabeak eskaintzen dituzte, beste leku batzuetan nekez aurki daitezkeenak.

Inguruan, **barnealdeko hiru hondartza daude** — Landa, Iparraldeko Garaio eta Hegoaldeko Garaio—, **hirurak bandera urdindunak**, uraren kalitatearen, ingurumen-kudeaketaren eta eskura dauden zerbitzuen eskuragarri. Parke probintzialen barruan daude, eta bainu-eremu seguruak, belardiak, zuhaitzak eta atsedenerako eta aisiarako espazioak eskaintzen dituzte. Gainera, mugikortasun urriko pertsonentzako **sarbide egokituak eta zerbitzuak** dituztenez, bermatuta dago hondartzen izaera inklusiboa, publiko guztientzako baitira.

Oinezkoentzako bideek, bidegorriek eta aisialdirako guneek ingurune osoa lotzen dute, eta oinez edo bizikletaz ibiltzeko eta urtegia hainbat ikuspegitatik ezagutzeko aukera ematen dute.

Oso eremu zabala denez, **paisaiaz lasaitasunez goza** daiteke, baita jenderik gehien dabilen hilabeteetan ere; hori dela eta, esperientzia lasaia eta paisaiarekiko errespetuzkoa sustatzen du.

NATURAZ BETERIKO URTEA

· Esperientzia turistikoak ·

Gaueko kantuak

Urtegiko dantza

Orkideen ibilbidea

Udazkeneko koloreak eta marrualdia

Ispiluak uretan

Urtegiko bitxi urdina

Izarren azpian

Hegaztien behaketa bizikletaz

Pedalei eragiten uraren eta paisaiaren artean

Arrantza jasangarria kayakez





URIBARRI GANBOAKO URTEGIA URTE OSOAN ZEHAR

Urtaroen magia

Urtegiaren ingurune naturalak **paisaia aldakorra** eskaintzen du **urteko lau urtaroretan**, eta urtaro bakoitzak esperientzia bereziak sortzen ditu.

Udaberria

Udaberriak kolorez eta bizitzaz beteriko mosaiko bihurtzen du paisaia. Basoek, belardiek eta hezeguneek bizitasuna berreskuratzen dute, eta **hegazti askok leku aproposa** aurkitzen dute, bertan, **habiak egiteko edo migrazio-bideetan geldialdia egiteko**. Egunak luzatu egiten dira, eta tenperatura epelek ingurua ezagutzeko gogoia ematen dute.

Uda

Udan, aire zabalaz gozatzeko gune ezin hobe da: **bainua, bela, kayaka, paddle surfa** eta iluntzeko paseoak. Argi-ordu luzeek eta haize leunak giro ezin hobe sortzen dute bidezidorretan barrena ibiltzeko, **ibilbide berdea egiteko, gaueko zeruari begiratzeko** edo uraren gainean islatzen den ilunabarra ikusteko.

Udazkena

Basoak okre, urre eta gorrixka kolorez tindatzen dira, **paisaia bereziki fotogenikoa** sortuz. Gainera, une ezin hobe da hegazti migratzaileak behatzeko, babesleku egokia aurkitzen baitute hezeguneetan.

Negua

Neguan lasaitasuna iristen da eta urtegiak bere alderdirik kontenplatiboena erakusten du. **Goizeko lanbroak**, argi leunak eta paisaiaren baretasunak giro berezia sortzen dute. Egun hotzetan, **mendietako elurrak** urtegiaren urdinarekin kontrastatzen du, eta lasaitasunez paseatzera eta hegazti negutarrak behatzera bultzatzen gaitu.



NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

Uraren eta biodibertsitatearen paisaia

Uribarri Ganboako urtegia Arabako naturagunerik baliosuenetakoa da gaur egun; izan ere, urak ekosistema-dibertsitate handia sortu du han. Hezeguneek, lezkadiak, uholde-belardiek eta ibaiertzeko basoek balio ekologiko handiko mosaikoa osatzen dute (Natura 2000 Sarean dago).

Hegaztiak behatzeko eta argazkiak ateratzeko toki pribilegiatua

Mendixurko Parke Ornitologikoa penintsularen iparraldeko erreferente nagusietako bat da, eta hezegune garrantzitsuenetako bat. Bertako behatokiei esker, faunari eragin gabe urmaletara hurbildu eta espezie ugari ikusmira ditzakegu, koartza hauskarak, zingira-mirotzak, ubarro handiak, mokozabal arruntak edo anatido eta limikoloak, batez ere udaberriko eta udazkeneko migrazio-garaian.


Zeru irekiak eta gau izartsuak

Paisaiaren zabaltasunak eta argi-kutsadura txikiak zeruen kalitate handia ahalbidetzen dute; horregatik, urtegia leku aproposa da ilunabarrez eta gau izartsuez goatzeko, lasaitasun- eta isiltasun-giroan.

Natura oinez edo bizikletaz

Bide berdeen eta landa-bideen sareari esker, urtegia oinez edo bizikletaz ingura daiteke, landa-guneak, naturaguneak eta ur gaineko behatokiak elkarlotuz. Urtegiko ibilbide perimetrala Arabako ibilbide zikloturista erakargarrienetakoa da.

Jarraian, urtegiko natura ezagutzeko eta hartaz goatzeko esperientzia turistikoen aukera bat aurkituko duzue.



GAUEKO KANTUAK

Ezagutu basoko soinuak eguzkia sartzen denean

Murgildu basoko isiltasunean eta harritu gaueko soinuekin. Esperientzia gidatu honetan, urtegian dauden **gaueko hegaztiak** ezagutuko dituzu, hala nola urubi arrunta eta hontz ertaina, eta haien **kantuak bereizten** ikasiko duzu, **natura betean**.

Jarduera gauez egiten da, eta ibilaldi lasai batean, gidariak soinuak identifikatzen, espezie horien portaera ulertzen eta **izarren azpian esperientzia paregabe** bat bizitzen lagunduko dizu.

Gainera, errolda akustikoetarako balio duten erregistro errazak biltzen parte hartuko duzu, eta **hegazti horiek hobeto ezagutzen eta** ingurunean **kontserbatzen**.

 **Noiz.** Neguan (abendutik otsailera, ahots-jarduerarik handiena dagoen garaian).

 **Iraupena.** 2,5–3 ordu, gauez.

 **Non.** Urtegiko baso-eremuetan.

 **Norentzat.** Familientzat eta naturazaleentzat.

 **Maila.** Erraza; ibilbide labur eta samurra.

 **Kontuan hartzekoa.** Jarduera eguraldiaren eta hegaztien jarduera naturalaren mende egongo da.

 **Zer eraman.** Berokia, oinetako erosoak eta kopeta-argia. Gidariak material osagarria eramango du.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



URTEGIKO DANTZA

Behatu eta atera argazkiak murgil handiaren gorteatze-erritualari

Ezagutu **murgil handiaren eztei-dantza** dotorea, urtegiko hegaztien portaera deigarri eta fotogenikoenetako bat. Esperientzia honi esker, hegazti honen **gorteatze-errituala naturan bertan behatu eta argazkiak atera** ahal izango dituzu, urteko intentsitaterik handieneko unean.

Eguneko lehen orduan hasten da jarduera, **hegaztiak aktiboen daudenean**, eta hainbat behaketa-puntutan barrena gauzatzen da. Haien portaera oztopatu gabe, murgil handiaren erakustaldi ikusgarriak eta inguruko beste hegazti batzuk ikusteko eta argazkiak ateratzeko aukera izango duzu.

Goizean zehar, **lasaitasunez behatzeko uneak** eta kokalekuen arteko joan-etorri txikiak tartekatzen dira, ingurunearekin konektatuta dagoen esperientzia pausatu batean.



Noiz. Martxoan eta apirilaren hasieran.



Iraupena. 08:30etik 12:30era (lehen orduetan izaten da jarduerarik handiena).



Non. Urtegiaren inguruko behaketa-puntuetan eta bidezidorretan.



Norentzat. Hegazti-behatzaileentzat eta natura eta argazkigintza maite dituztenentzat (maila guztiak).



Maila. Erraza. Seinaleztatuta dauden bidezidorrak, zailtasun teknikorik gabeak.



Kontuan hartzekoa. Eguraldiaren eta hegaztien portaeraren mende dago jarduera.



Zer eraman. Prismatikoak eramatea eta behaketan zehar isilik egotea gomendatzen da.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



ORKIDEEN IBILBIDEA

Ezagutu urtegiko orkidea basatien loraldia

Murgildu **orkidea basatien** munduan eta ezagutu urtegiko fenomeno natural berezietako bat. Esperientzia honek **interpretazio botanikoko ibilbide gidatu** bat proposatzen dizu, bitxi botaniko txiki hauek gertutik ezagutzeko, paisaian nola hazten eta integratzen diren behatuz.

Ibilbidean zehar, gidari espezializatu batek **hainbat espezie identifikatzen**, haien bizi-zikloak ulertzen eta polinizazio-estrategia harrigarriak aurkitzen lagunduko dizu.

Jarduera erritmo lasaian gauzatzen da, **naturaz goatzeko geldialdi ugari eginez**. Ingurunearekin konektatzeko eta xehetasun txikiei erreparatzeko esperientzia ezin hobe da.

-  **Noiz.** Udaberrian, apiriletik ekainera bitartean, loraldiaren arabera.
-  **Iraupena.** 3–4 ordu, erritmo lasaian.
-  **Non.** Urtegiaren inguruko bidezidor eta belardi naturaletan.
-  **Norentzat.** Naturaren, botanikaren eta makro argazkigintzaren zaleentzat.
-  **Maila.** Erraza. Zailtasun teknikorik gabeko ibilbideak.
-  **Kontuan hartzekoa.** Eguraldiaren eta loraldiaren egoera naturalaren mende dago jarduera.
-  **Zer eraman.** Landa-eremurako arropa eroso. Kamera eramanez gero, makro objektiboa eta tripode arina.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



UDAZKENEKO KOLOREAK ETA MARRUALDIA

Bizi udazkena unerik ikusgarrienean

Ezagutu urtegiko unerik gogoangarri eta fotogenikoenetako bat: **udazkeneko paisaia kolorez janzten da, oreinaren marrualdiak goizeko isiltasuna hausten du** eta basoak argiz tindatzen hasten dira.

Jarduera egunsentian hasten da, **Salburuan**. Bertan, **oreinak marrualdi betean ikusi eta argazkiak atera** ahal izango dira, giro lasaian.

Gero, urtegiko hainbat puntutan barrena ibiliko zara, **goizeko lainoez, uraren gaineko islez eta paisaiaren koloreez** patxadaz gozatzeko.



Noiz. Irailaren amaieran eta urrian, marrualdiarekin eta hostoen koloreztatzearekin bat etorriz.



Iraupena. 3–4 ordu (goizeko lehenengoetan).



Non. Salburuko behatokitik eta urtegiko nahiz inguruko basoetako paisaia-puntuetan.



Norentzat. Naturaren eta argazkigintzaren zaleentzat.



Maila. Erraza. Joan-etorri samurrak eta geldialdi irisgarriak.




Kontuan hartzekoa. Eguraldiaren eta oreinen portaeraren mende dago jarduera.



Zer eraman. Berokia eta oinetako erosoak. Behatzeko prismatikoak eramatea gomendatzen da.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



ISPILUAK URETAN

Ezagutu urtegia islen bitartez

Ezagutu urtegiko txoko berezienetako batzuk; **paisaia uraren gainean islatzen da eta irudi paregabeak sortzen dira haietan**. Ibilbide honek baldintza ezin hobeak dituzten hainbat puntu lotzen ditu —ur lasaiak, babestutako ibaiertzak eta paisaia dotoreak—, **bereziki fotogenikoak diren islez gozatzeko**.

Zure erritmoan egin dezakezu, edo paisaia interpretatzen eta irudirik onenak harrapatzen lagunduko dizun gidari baten laguntzarekin. Esperientzia lasaia da, ezin hobe **argazkiak ateratzeko, marrazkiak egiteko** edo, besterik gabe, **inguruneaz gozatzeko**.

 **Noiz.** Urte osoan zehar (batez ere udaberrian eta udazkenean, argiaren eta paisaiaren koloreak direla eta).

 **Iraupena.** 3–4 ordu.

 **Non.** Urtegiaren inguruan aukeratutako guneetan.

 **Norentzat.** Naturaren, argazkigintzaren edo artearen zaleentzat.

 **Maila.** Erraza. Ibilbideak bidezidor irisgarrietatik.

 **Kontuan hartzekoa.** Eguraldiaren (bereziki, haizearen) mende dago jarduera.

 **Zer eraman.** Kamera, marrazketa-koaderno edo pintatzeko materiala.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



URTEGIKO BITXI URDINA

Jarraitu urtegiko hegazti berezi baten, martin arrantzalearen, arrastoa

Hurbildu urtegiko hegaztirik deigarrienetako batengana: **martin arrantzalea**. Esperientzia honek **hegazti fotogeniko hau behatzeko ibilbide gidatua** proposatzen dizu, martin arrantzalearen **araldi- eta gorteatze-garaian** eta hegaztien dentsitaterik handiena pilatzen den sasoian, **hegazti negutarrak iristen direnean** (udazkenean).

Martin arrantzalea ohikoa den lekuetan zehar egiten da ibilbidea, hala nola arrantza-eremuetan edo pausaleku naturaletan. Ibilbidean, joan-etorri txikiak eta itxaroteko eta behatzeko uneak tartekatzen dira, betiere hegaztiaren portaera errespetatuz.

 **Noiz.** Udaberrian (araldian) eta udazkenean (espezie negutarrak iristen direnean).

 **Iraupena.** 3–4 ordu.

 **Non.** Martin arrantzalea egon ohi den urtegiko guneetan.

 **Norentzat.** Naturaren, hegazti-behaketaren eta argazkigintzaren zaleentzat.

 **Maila.** Erraza. Ibilbide samurrak, behatzeko geldialdiekin.

 **Kontuan hartzekoa.** Eguraldiaren eta hegaztiaren portaeraren mende dago jarduera.

 **Zer eraman.** Prismatikoak eta arropa diskretua eramatea gomendatzen da.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



IZARREN AZPIAN

Gozatu gaueko zeruaz ingurune paregabe batean

Utzi zeure buruari urtegiko zeru izartsuan harritzen, **natura bete-betean egingo den behaketa astronomikoan**. **Argi-kutsadura txikia** denez, **zerua ikusteko baldintza ezin hobeak** eskaintzen ditu ingurune honek.

Jarduera **Pertseiden edo San Lorentzoren malkoen** garaian egiten da, udako unerik berezienetako batean, Gebaratarren dorre-jauregiaren inguruan, esperientziari testuinguru berezia ematen dion kokagune historiko batean.

Teleskopioen eta azalpen sinpleen laguntzarekin, **konstelazioak eta planetak ezagutzen** ikasiko duzu, **eta izar iheskorrez gozatzeko** aukera izango duzu.

 **Noiz.** Pertseiden astean (abuztuaren 10etik 15era).

 **Iraupena.** 2–3 ordu.

 **Non.** Gebaratarren dorre-jauregian.

 **Norentzat.** Publiko guztiarentzat eta astronomiaren eta naturaren zaleentzat.

 **Maila.** Erraza.

 **Kontuan hartzekoa.** Zeruaren egoeraren eta baldintza meteorologikoen mende dago jarduera.

 **Zer eraman.** Berokia eta oinetako erosoak. Manta edo estera eramatea gomendatzen da, zerua behatzeko.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



HEGAZTIEN BEHAKETA BIZIKLETAZ

Ezagutu gurpil gainean hegaztiak behatzeko punturik onenak

Zeharkatu urtegia bizikletaz, haren aberastasun naturala ezagutzen duzun bitartean. Esperientzia honek **jarduera fisiko leuna, hegaztien behaketa eta paisaiaren interpretazioa** uztartzen ditu, **Arabako bizikleta-ibilbiderik erakargarrienetako bat den** Ibilbide Berdeko tarteetan zehar.

Ibilbidea **erritmo lasaian** egiten da, pedalei eraginez eta gune estrategikoetan geldialdiak eginez, hegaztiak behatzeko eta ingurunearen balio ekologikoa ulertzeko. Naturarekin konektatzeko modu aktibo eta desberdina da.

 **Noiz.** Urte osoan zehar (batez ere udaberrian eta udazkenean).

 **Iraupena.** 3–4 ordu.

 **Non.** Urtegiko bide berdeko tarteetan.

 **Norentzat.** Naturaren eta zikloturismoaren zaleentzat.

 **Maila.** Ertain-txikia. Ibilbidea pista eta bide egokitueta barrena.

 **Kontuan hartzekoa.** Eguraldia mende dago jarduera.

 **Zer eraman.** Bizikletaz ibiltzeko arropa eroso. Prismatikoak eramatea gomendatzen da..

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



PEDALEI ERAGITEN URAREN ETA PAISAIAREN ARTEAN

Zeharkatu urtegia natura, ura eta gastronomia uztartuz

Ezagutu urtegia **bi gurpilen gainean**, jarduera fisikoa, paisaiaren interpretazioa eta tokiko **gastronomia** uztartzen dituen esperientzia batean. Bide Berdeko tarteetan zehar —**bizikletaz egiteko Arabako ibilbiderik erakargarrienetakoa da**—, urez, basoz eta bizitza basatiaz inguratuta ibiliko zara.

Ibilbidea **erritmo lasaian** egiten da, pedalei eraginez eta gune estrategikoetan geldialdiak eginez, **hegaztiak behatzeko** eta **ingurunea ulertzeko**. Paisaiaz gozatzeko modu aktibo eta irisgarria da, hainbat mailatara egokitu daitekeena eta **deskonektatzeko ezin hobe**a; bizikletaz edo bizikleta elektrikoaz egin daiteke.

 **Noiz.** Udaberrian, udan eta udazkenean.

 **Iraupena.** 4–5 ordu (ibilbidearen eta erritmoaren arabera).

 **Non.** Urtegiko bide berdeko tarteetan.

 **Norentzat.** Zikloturistentzat eta publiko guztiarentzat.

 **Maila.** Txiki-ertaina. Moldagarria da eta bizikleta elektrikoarekin ere egin daiteke.

 **Kontuan hartzekoa.** Eguraldia mende dago jarduera.

 **Zer eraman.** Arropa eroso, eguzki-babesa eta ura.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



ARRANTZA JASANGARRIA KAYAKEZ

Lutxoa arrantzatzeko leku paregabea

Bizi urtegia beste ikuspegi batetik, **kayak bidezko kirol-arrantzako** jardunaldi batekin. Lasaitasunez nabigatuko duzu jende gutxi dabilen eremuetan, eta **natura bete-betean dagoen txokoetara** sartuko zara, inguruari ahalik eta gutxien eraginez.

Esperientzia **arrantza jasangarrian** oinarritzen da, **harrapatu eta askatzeko praktikan**, eta behaketa, pazientzia eta ingurunearekiko errespetua izango ditu ardatz. Arrantzaz haratago, deskonektatzeko eta **uraren isiltasunaz** goatzeko modu paregabea da.



Noiz. Udazkenean eta neguan.



Iraupena. 4–5 ordu.



Non. Urtegiko puntu estrategikoetan.



Norentzat. Arrantza gogoko dutenentzat.



Maila. Ertaina. Oinarrizko egoera fisikoa behar da, eta kayakean ibiltzen jakitea (erraza da).





Kontuan hartzekoa. Uraren egoeraren, araudiaren eta espezieen portaeraren mende dago jarduera.



Zer eraman. Arropa eroso, eguzki-babesa eta aldatzeko arropa.

Informazio gehiago eta erreserbak: kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.





JARDUEREN EGUTEGIA

Naturaz urte osoan zehar gozatu ahal izateko aukeratutako jarduerak eta esperientziak

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
Gaueko kantuak												
Urtegiko dantza												
Orkideen ibilbidea												
Udazkeneko koloreak eta marrualdia												
Ispiluak uretan												
Urtegiko bitxi urdina												
Izarren azpian												
Hegaztien behaketa bizikletaz												
Pedalei eragiten uraren eta paisaiaren artean												
Arrantza jasagarria kayakez												

Gomendatutako garairik onena

Gomendatutako beste aldi batzuk

URPEAN GERATUTAKO HISTORIAK

· Esperientzia turistikoak ·

Murgildu historian
Urpean geratu diren herrien memoria
Urtegiko xuxurlak kayakez
Urtegiaren hegala eta memoria
Urtegiaren jatorria





KULTURA, HISTORIA ETA ONDAREA

Urpeko historiak

Urtegiko uretan dautza Arabako memoria hurbila osatzen duten historiak. Urtegia eraikitzeko, herri hauek desagertu ziren, guztiz edo zati batean: Azua, Garaio, Larrizar, Marieta, Mendixur, Mendizabal, Langara Ganboa, Orenin eta Zuhatzu Ganboa. Bertako biztanleek etxeak eta lurak utzi behar izan zituzten paisaia berriari bide emateko. Gaur egun, **iragan horrek bizirik jarraitzen du oroitzapenetan, familia-kontakizunetan eta** uraren maila jaisten denean agerian geratzen diren aztarnetan.

Bideak, ondarea eta paisaia

Inguruneak **landa-identitate** sendoa du oraindik. Elizek, ermitek eta herri-ondareko elementuek **lurrari lotutako bizimodua** islatzen dute; bestalde, herrien arteko antzinako bideak ibilbide bihurtu dira, paseatzeko edo irakurtzeko, **iragana eta oraina gurutzatzen diren liburu ireki** bat balira bezala

Memoriaren eta erresilientziaren lurraldea

Urtegiaren historia egokitzapen eta **erresilientzia kolektiboaren kontakizuna ere bada**. Pixkanaka, urtegiarekiko harremana aldatu egin da, eta lurraldea erabiltzeko eta baliatzeko modu berriak sortu dira, betiere iraganarekiko lotura emozionala galdu gabe. Espazio hau bisitatzea memoria partekatura hurbiltzea da, esanahiz betetako paisaia batera, non bat egiten duten kulturak, naturak eta giza esperientziak.



MURGILDU HISTORIAN

Ezagutu urtegiko uren azpian ezkututzen den iragana

Ezagutu **urpean ezkutatuta geratu den ondare paregabea**. Urpekaritza gidatuko esperientzia honetan, urtegiaren hondoetan murgilduko zara eta urtegia sortzean **urpean geratu ziren antzinako herri eta eraikinen aztarnak** aurkituko dituzu.

Ur azpian **ondare** ikusezina dago, eta ondare horrek antzinako haraneko bizimodua ulertzeko aukera emango dizu, baita urtegia sortzean **lurraldea nola eraldatu zen** ere.

Uretan murgildu aurretik, Ganboako bailararen historia ezagutuko duzu eta urtegia eraikitzean nola aldatu zen ikasiko. Urpean, aparteko **esperientzia sentsorial** bat duzu zain: uretan **iragazten den argiak, urpeko landarediak** eta **isiltasunak** atmosfera paregabea sortzen dute, patxadaz esploratzera gonbidatzen zaituena.

 **Noiz.** Urte osoan zehar (hobeto ikusten da ur hotzetan).

 **Iraupena.** 3-4 ordu.

 **Non.** Segurtasun-baldintzen arabera hautatutako urtegiko eremu baimenduetan.

 **Norentzat.** Esploratzeko interesa dutenentzat, urpekari ziurtatuak nahiz hasi berriak direnentzat.

 **Maila.** Ertaina. Irakasle espezializatuek gidatutako jarduera.

 **Kontuan hartzekoa.** Uraren egoeraren, ikusgarritasunaren eta baldintza meteorologikoen mende dago jarduera.

 **Zer eraman.** Ekipo teknikoak beharrezkoa den materiala eramango du.

Informazio gehiago eta erreserbak: Kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



URPEAN GERATU DIREN HERRIEN MEMORIA

Bidaiatu iraganera paisaien eta kontakizunen bidez

Ezagutu haranaren eguneroko bizitzaren parte izan diren **antzinako herrien historia**, urtegia inguratzen duten behatoki, bide eta herrietatik igarotzen den **interpretazio-ibilbide** baten bidez. **Harana urez bete aurretik bizitza nolakoa zen** eta prozesu horrek paisaia nola eraldatu zuen jakingo duzu bertan.

Argazki zaharrek, kontakizunek eta lurraldeari buruzko erreferentziek **desagertutako herrien memoria berreraikitzen lagunduko dizute**, baita bertan bizi ziren komunitateen bizimodua ulertzen ere. Horrela, urtegia beste modu batera ulertuko duzu; ez naturagune gisa soilik, baizik eta baita bertan bizi izan zirenen historia gordetzen duen **esanahiz betetako kultura-paisaia** moduan ere.



Noiz. Urte osoan zehar.



Iraupena. 3-4 ordu.



Non. Inguruko udalerri eta behatokietan.



Norentzat. Lurraldearen historia, ondarea eta paisaia ezagutu nahi dutenentzat.



Maila. Erraza. Zailtasunik gabeko bidezidorretan barrena.



Kontuan hartzekoa. Eguraldiaren mende egongo da jarduera.



Zer eraman. Arropa erosoak, oinez ibiltzeko oinetakoak, ura eta eguzki-babesa.

Informazio gehiago eta erreserbak: Kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



URTEGIKO XUXURLAK KAYAKEZ

Ezagutu urtegia uraren lasaitasunetik

Zeharkatu urtegia kayakez eta gozatu paisaiaren beste ikuspegi batez. **Ur bareen gainean irristatuz, bertako biodibertsitatea, txoko ezkutuak eta ingurune honi forma ematen dion historia ezagutuko dituzu.**

Jarduerak **kirol leuna eta paisaiaren interpretazioa** uztartzen ditu, ibilbide gidatu batean, eta, bertan, urtegiaren balio naturalak, garrantzi ekologikoa eta historia ezagutuko dituzu.

Arraun egiteak **lehorretik ikusten ez diren lekuetara** hurbiltzeko aukera ematen du, esperientzia lasaia, jasangarria eta naturarekin lotura estua duena eskainiz.



Noiz. Udaberrian, udan eta udazkenaren hasieran.



Iraupena. 3–4 ordu.



Non. Urtegiko eremu lasai eta seguruetan.



Norentzat. Naturaren eta turismo aktiboaren zaleentzat.



Maila. Erraza. Ez da beharrezkoa aurrez esperientzia izatea.



Kontuan hartzekoa. Eguraldiaren mende dago jarduera.



Zer eraman. Arropa eroso, ura eta eguzki-babesa.

Informazio gehiago eta erreserbak: Kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



URTEGIAREN HEGALAK ETA MEMORIA

Ezagutu paisaia bere historiaren eta hegaztien bitartez

Arakatu urtegia **natura, historia eta hegazti-behaketa** uztartzen dituen begirada batetik. Esperientzia honek interpretazio-ibilbide bat proposatzen du bidezidor eta begiratokietan barrena, Ganboako **haran zaharra nolakoa zen, bertako biztanleak nola bizi ziren eta paisaia** gaur egungo ingurune bihurtu arte **nola eraldatu zen** jakiteko.

Aldi berean, hezeguneko **hegaztirik** adierazgarrienetako batzuk **behatzeko eta identifikatzeko** aukera izango duzu, puntu estrategikoetatik eta paisaian integratuta dauden behatokitatik. Urtegia guztiz ulertzeko modu bat da, izan zenaren eta gaur egun bizirik dagoenaren bidez.

 **Noiz.** Urte osoan zehar (batez ere udaberrian eta udazkenean, migrazio-garaietan).

 **Iraupena.** 3-4 ordu.

 **Non.** Urtegiko bidezidor, begiratoki eta behatokitak.



 **Norentzat.** Naturaren, hegaztien eta historiaren zaleentzat.

 **Maila.** Erraza. Ibilbide seinaleztatuak eta zailtasunik gabeak

 **Kontuan hartzekoa.** Eguraldiaren eta hegaztien portaeraren arabera jarduera.

 **Zer eraman.** Arropa eroso eta oinez ibiltzeko oinetakoak. Prismatikoak eramatea gomendatzen da.

Informazio gehiago eta erreserbak: Kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.



URTEGIAREN JATORRIA

Ezagutu nola sortu zen gaur egungo paisaia

Ezagutu urtegiaren jatorria, **presara interpretazio-bisita** bat eginda, eta ikasi non hasi zen antzinako nekazaritza-haranaren eraldaketa, gaur egun ezagutzen dugun paisaia bihurtu arte.

Ibilbidean zehar, **ingeniaritza-lan handi** hau zergatik eraiki zen, garaiko erronka teknikoak zein izan ziren eta haraneko **komunitateen bizimodua nola aldatu zen** ikasiko duzu.

Urtegia ulertzeko aukera paregabea da, baina ez naturagune gisa bakarrik, lurraldearen **eraldaketaren ikur** gisa eta uraren kudeaketan funtsezkoa den azpiegitura gisa ere bai.



Noiz. Urte osoan zehar.



Iraupena. 1,5-2 ordu.



Non. Urtegiko presan.



Norentzat. Publiko guztiarentzat.



Maila. Erraza. Ibilbide laburra eta samurra.



Kontuan hartzekoa. Segurtasun-baldintza egokietan sartzeko aukera egotearen mende dago jarduera.



Zer eraman. Arropa eroso eta eguraldiaren arabera.

Informazio gehiago eta erreserbak: Kontsultatu enpresen zerrenda 56. orrialdean.





JARDUEREN EGUTEGIA

Kulturaz urte osoan zehar gozatu ahal izateko aukeratutako jarduerak eta esperientziak

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
Murgildu historian												
Urpean geratu diren herrien memoria												
Urtegiko xuxurlak kayakez												
Urtegiaren hegala eta memoria												
Urtegiaren jatorria												

Gomendatutako garairik onena

Gomendatutako beste aldi batzuk

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Jarraian ageri diren enpresek Uribarri Ganboako urtegiaren inguruko ehun turistikoa osatzen dute, proiektuan parte hartu dute eta aurkeztutako esperientziak gauzatzen laguntzen dute.

HEGAZTIEN ETA NATURAREN BEHAKETA

- › EQUINOCCIO NATURA
<http://equinoccionaturaleza.blogspot.com> |
@equinoccio_natura
- › FAUNEANDO
<https://www.fauneando.com> |

KAYAKEZ EGITEKO IBILBIDEAK

- › AZOR KAYAKS
<https://www.azorkayaks.com> | @azorkayaks
- › PERCHZILLA
<https://perchzilla.com> |
@perchzilla_guides_and_rentals_

ARRANTZA

- › PERCHZILLA
<https://perchzilla.com> |
@perchzilla_guides_and_rentals_

URPEKARITZA

- › URPEKO
<https://urpeko.com> | @urpekodiving
- › AVENTURA ARDILLA
@buceoaventuraardilla

BIZIKLETAZ EGITEKO IBILBIDEAK

- › CAPITAL BIKES
<https://www.capitalbikes.es> | @capitalbikes
- › LURBIDE
<https://lurbide.com> | @lurbide_
- › GUIARTU
<https://guiartu.es> | @guiartu_vitoria

INTERPRETAZIO-IBILBIDEAK ETA GIDAK

- › ÁLAVA MEDIEVAL
<https://alavamedieval.com> | @alavamedieval
- › KALEARTE
<https://www.kalearte.com> |
@kalearte_turismo_y_cultura
- › AITOR DELGADO TOURS
<https://www.aitordelgado.com> |
@aitordelgadotours

AGENTZIA HARTZAILEA

- › GENUINE SPAIN
<https://genuinespain.es> | @genuinespain

GARRAIO PRIBATUA

- › BOOKROADS TOURS
<https://www.bookroad.eu> | @bookroad_eu

BESTE GUNE INTERESGARRI BATZUK

- › CLUB NÁUTICO DE VITORIA
<https://cnvitoria.com> | @clubnauticovitoria



JATETXEA ETA OSTATUAK

Jarraian ageri diren ostatu eta establezimenduek urtegiaren inguruko esperientzia osatzen laguntzen dute, bisitaria lurraldeko zaporeetara eta abegikortasunera hurbiltzen baitute.

JATETXEA

Ecobar Mi Castillo de Arena, Zurbano

<https://micastillodearena.es> |

@micastillodearenaecobar

La Benta, Mendijur

@la.benta_

Restaurante Aletegui, Argómaniz

<https://paradores.es/es/restaurante-aletegui-parador-de-argomaniz>

Restaurante Etxe-Zuri, Landa

@restauranteetxezurijatetxea

Restaurante Urbazter, Ullíbarri-Gamboa

<https://www.urbazter.com> | @urbazter

Restaurante Club Náutico de Vitoria, Ullíbarri-Gamboa

Uriko Taberna, Marieta

Bar Restaurante Zurbano, Zurbano

@restaurantezurbano

Eguzkilore Taberna, Durana

@eguzkiloreibarra

Sagu Taberna, Durana

@sagu.taberna

Cafetería Sologana, Durana

@bar_sologana_durana

Bar Landederra, Elburgo

OSTATUAK

Palacio de Luko 4*, Luko

<https://www.palaciodeluko.com> |

@palaciodeluko

Parador de Argómaniz 4*, Argómaniz

<https://paradores.es/es/parador-de-argomaniz> | @paradores

Casa Rural Mirador Ardea, Mendijur

<https://www.miradorardea.com> |

@casaruralmiradorardeamendixur

Agroturismo La Casa Vieja, Maturana

<https://www.casaviejamaturana.com>

Casa Rural Sagasti Zahar, Maturana

Villa Argómaniz, Argómaniz

Balcón de la Llanada, Argómaniz

Inguruari buruzko informazio turistiko gehiago

GARARIOKO INFORMAZIO-BULEGOA

<https://ullibarri-gamboa.araba.eus/>

CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA - ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA

<https://www.visitlautada.com/>

| @arabakolautada

CUADRILLA DE GORBEIALDEA - GORBEIALDEKO KUADRILLA

<https://www.gorbeiaeuskadi.com>

| @gorbeia_euskadi









alava
turismo.
eus



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INDUSTRIA
Y TURISMO



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

araba  álava

ÁLAVA TURISMO

www.alavaturismo.eus

 @alavaturismo

 Álava Turismo

 @TurismoAlava